

Himnoak eta antzak

Duela hamabost egun hemen hizpide izan genuen liburuan, Eusko Jaurlaritzak osatu berriaren hartu beharreko lehen erabaki zailak Euskara Batua eta Ereserkiarena izan zirela aitortu zion Carlos Garaikoetxea lehendakariak Elixabete Garmendiari. Bide batez, Danborenak egindako proposamen probokatzailerak hura ere (himnotzat *Desde Santurce a Bilbao* izendatzearena) gogorazi digu pasarte hura ahaztuta geneukano.

Datagatik, iruditzen zait Oñatiko Unibertsitate zaharrean 1983an Herri Arduraritzaren Euskal Erakundearen irekiera ekitaldian izango zela lehenengo aldietakoa ofizialki jo zena. Herriko bandako zuzendariaren aita gerra irabazi zutenetakoa zen, eta Sestako bandako zuzendaritzatik ordurako jubilatuta, semearen agindupean tuba jotzen zuen. Gogorra egin zitzaion *Eusko Abendaren Ereserki* hura lehendakariaren

aurrean jo beharra, eta azken unerara arte saiatu zen *Germikako Arbolak* jotzen. Gogoan daukagu entsegu batean partiturak ere banatu zituela erdi ezkutuan, semearen haserrerako.

Gerrako oihartzuna dauka Pablo Solozabalen *Deba* martxa ezagunak ere, hasiera batean Madrileko euskal milizianoei 1936an eskainitako himnoa izan baitzen, lehenengo *Eusko Indarra* eta gero *Euskadi Libre* izenarekin bataiatua. Hogei urte beranduago bihurtu zuen donostiarrak gaur egun dena. Mendeku merkea da, baina bere jatorria ezagutzen zutenetako batzuek justizia poetikotzat hartzen zuten hasieran, doinu harekin herriko zenbait karlista eta frankista zahar gozatzen ikuste.

Berriki, Realaren eta Athleticen himnoak izan ditugu eztabaidagai gurean. Realaren letratik *mutilak* hitza ordezkatzeari erabaki zen berdintasunaren izenean, eta Anoetan jendeak abestu ahal izateko



ARKUPEAN
Iñaki Galdos Irazabal

1983 arte milaka euskal musikaririk sarri jotzen zuten doinu herriko bat futbol talde bateko himno bihurtu zuten. Ez dago ez 'Unidad Guipuzcoana' sortu beharrik, ez Athletic gorrotatu beharrik, hura erabaki okerra izan zela esateko

erritmo motelagoa zuen bertsoa moldatzea. Zalaparta handia sortu zenez, azkenean zuzendaritzak atzera egin du eta berriz ere himnoaren erritmoa bizkortu. Zorionez, letraren aldaketan ez dira lehenengora itzuli eta garbi geratu da oso gehiengo zabalaren babesa duela egindakoak.

Athleticenak hauts gehiago harrotu ditu, zalantzarik gabe. Eta neurri batean errudun ere sentitzen naiz, aurten, nolabait esatearen nire aspaldiko idatzi bat hartu baitu abiapuntu, beste derbi baten atarian tronpa-soinuan idatzi nuen. Deseroso sentitu naiz hari horri tiraka sareetan irakurri ditudan zenbait gauzarekin. Egunkari honetan bertan, ostiralean Andoni Egañak esan zigun ez zaiola probintzien arteko kultur lapurren akusazioen bidea interesatzen eta himno horrekin gertatzen dena musikan oso ohikoak diren antzekotasunetan kokatu zuen, oker ez banago.

Beste gauza askotan bezala, asko zor diegu ansorenatarrei euskal musikan dauden antzekotasunei buruz egin duten ekarpenagatik. Jose Luis Ansorenak, adibidez, aspalditxo idatzi zuen *Artolak Deuko*, *Olentzero buru handia* eta *Uno de enero*... doinuen arteko antzekotasunari eta jatorriari buruz. Ber gauza *Agur Jaunak* ezagunari buruz. Beste Ansorena bati ere, Jose Ignaziori, irakurriak dizkiogu antzeko argibideak, XX. mendean hasierako Azkue eta Gasqueren arteko eztabaida sutsua gogoratuz, besteak beste.

Askorako ematen du, beraz, antzekotasunen gaiak musikan ere. Haatik, kontua da, nire uste apalengan, eztabaidagai dugun Olaizola/Beobide/Bernaola musikarien himnoarekin gertatutakoa, antzekotasuna baino zerbait gehiago dela. Eta 1983 arte (kasualitate, hau ere urte berean) milaka euskal musikaririk sarri jotzen zuten doinu herriko bat, gauek egunera futbol talde bateko himno bihurtu zutela. Ez dago ez *Unidad Guipuzcoana* sortu beharrik, ez Athletic gorrotatu beharrik, hura erabaki okerra izan zela pentsatzeko eta esateko.

Aralarren hausturak

Jon Gorrotxategi

Aralar lur publikoa izanik, bere kudeaketa Mankomunitateko 15 udalerrietako erakunde zein erabiltzaileen gain erortzen da, guztion iritzia kentzen eta adostasun zabalaz iritsi gara honaino. Eta erabilera aipatuta, ekoizpen eta etekin ekonomikoak bilatzen duten artzain zein abeltzainek bezain erabiltzaileak gara kaletar, mendizale, urbanita, ehiztari, turista eta gainontzeko herritarak ere. Beraz, erabakiak denon iritzia bilduta hartu izan dira urte luzez. Ez ahaztu 600 urteko ibilbideaz ari garela, eta errealtate askotariko eta konplexu horretan, guztion adostasunak, errespetuak eta kontsentsuak ezinbesteko tresna eta altxorra osatu dutela.

1994ko apirilaren 26an Parke Natural izendatu zenean lortu zen adostasunean, arriskuan eta lortze bidean zegoen eta dagoen eremu baten kontserbazioak elkartu gintuen, oreka horretatik soilik bermatu genezakeelako ehunka urtetako elkarlanak moldatutako ondare natural preziatua.

Aralarko goi lurrak baso itxi izatetik egun ezagutzen dugun larre-soro izatera pasatu badira, mendeetan gizakiak naturarekin batera egindako eraldaketaren ondo-

rioz izan da. Eta ondare den eremu hori da hain zuzen ere babestu beharrekoa, basoaren galerak eta eremu karstikoaren berezko higaduraz gain, ganaduaren gehiegizko presioak galbidean jartzen duelako.

Presioaz ari garenean, ardi batek edo behi zein behor batek eragiten duena ez da berdina, konparagarria ez den bezala mendizale batek eragiten duena edo bizikleta, motor edo 4x4 batek sortzen duen higadura. Eta horixe da, hain zuzen, aztertu eta zaindu beharrekoa, Aralarko lur azala desertifikazio prozesu sakon batean sartuta dagoelako azken hamarkada luzeetan. Horregatik dute zientzialariek hainbeste garrantzi eremu horietako bilakaera neuritu eta diagnosi zein egitamuak proposatzeko garaian. Horrela izan zen 1988ko egitamu lehenik eta gerora 2003koa aurkeztu zirenean, zientzialarien aholkuak funtsezkoak bihurtu ziren norabide jakin batean eragile guztion artean kontsentsua bilatzeko.

Aranzadi Zientzia Elkarteak 2003ko egitamuaren egindako ekarpena ezinbesteko mugarririk izan zen, eragileen arteko orekaz aparte; alderdi politikoan aho batasuna izan zen. Ezin ahaztu batasun horren aurrerit pistak egin nahia ziklikoa izan dela, hamarnaka kilometroko bideak eginak daudelarik. Hegazkinak lur hartzeko eremua eta Lareon bungalowak ere egin eta negozio turistiko basatia martxan jarri nahi izan zen, filmak grabatzeko ahaleginak...

finean, ustiapen ekonomikoak beti presente egon da.

Orain, oreka, kontsentsua, adituen autoritate zientifikoa, pertsonen arteko errespetua, alderdi politikoan hitza eta beste hainbat balio hautsi dira leherketa eta hondeamakinaren oldarraldiarekin batera.

PNVren DNA n beti egon da negozio gosea lur azalean, azpian, airean zein itsasoa. Horrela, 2003ko adostasuna indarrean egonagatik, ezkutuan josi du abeltzain zein artzainekin Aranzadik marraztutako printzipioen aurkako estrategia. Ondoren, Mankomunitatean ordezkartza politikoak

ematen ez zion babesa erostera jo zuten, bere herriko ordezkarien gehiengoaren aurka bozkatzen duen alkateta lehendakari jarri, eta euren burua eta duintasuna oso merke saldu zuten, EH Bilduko hiru kide erosi zituelarik. Eta hor hasi zen beste ekinaldi bat, Aralar eta bere inguruaren haustura ekarri duena.

Oso gogorra izaten ari da hainbat abeltzainen indarkeria jarrera, guztionan den lurra berea balitz bezala jokatzu, mehatxu, deskalkifikazio eta jarrera mafiosoak. Goi lurretan eta Natur Parkea izateagatik diru laguntzak jasotzen dituzten artzainak biktimitzatuz, Goierriko lantegietan lan egiten duten ukuilurik gabeko abeltzainei pistak zabalduz.

Barkaezina da haustura, gogorragoa oraindik datorren lekutik etortzea; urte askotan defendatu ditugun artzainaren erabiliz osatu duten argumentuak ostrukarena egitera garamatza. Alderdiak zatituta, batzuk ohi duten bezala negozioarekin lerrotakuta, beste batzuk barne kontraesanen menpe, disidentzia iritzi aniztasun bilakatu eta betiko printzipioak galduta.

Asko dira gertatutako hausturak, urte asko beharko dira osatuko badira zauri horiek sendatzen, eta artzainek gaztak saldu nahiko dizkigute, abeltzainek haragia, alderdiek botoak eskatuko dizkigute, eta gu gure erosketa ohiturak eta babesak aldatu beharrean aurkituko gara.

Aranzadik 2003ko egitamuaren egindako ekarpena ezinbesteko mugarririk izan zen, eragileen arteko orekaz aparte; alderdi politikoan aho batasuna izan zen. Batasun horren aurretik pistak egin nahia ziklikoa izan da, hamarnaka kilometroko bideak eginak daudelarik